

Jinkoaren hitza, belaunaldiz belaunaldi.

José Javier López Antón.

Dakigun bezala, Erdi Aroan, Biblia ez zegoen lagunen eskuetan etxean lasaitasunez irakurtzeko. Adituek azaldu zuten, hala Itun Zaharra nola Itun Berria, nahiko arriskutsua izango zen Biblia herritaren artean zabaltzea. Zergatik? Haien ustez, Jaungoikoaren hitza jende xumearen artean uzteak adieraziko zukeen gizon eta emakumeek eskubide osoa zeukatela Jesusen hitzak erabiltzeko edota bere kabuz leitzeko. Hau da, hain zuzen ere, elizgizonek nahi ez zutena. Beharbada, beldur zeuden hiritarrek erabiliko zutela kristauen duintasuna aldarrikatzeko. Ondorioz, matxinadak ez ezik, herejia ugari ere hedatu ziren. Eta halako gertaerak izan ziren gehien kezkatzen zirenak. Esate baterako, oso egoera larria izango zen gotzainen poterea ez zela hain frogatua esatea. Emeki-emeki, gizartearen azpiegiturak kili-kolo geratzen hasiko ziratekeen. Pentsa ezazue artzai edo garbitzaile bat Jesusen hitzarekin, besapean, artzapezpikuen antzinean berdinak garela esanez!

a.- Gizartearen egoera.

Dena den, hori gertatu zen, eta bere ondorioak korapilatsuak izan ziren agintarientzat, besteak beste, Luterorentzat. Berak kristauen berdintasuna lortu nahi zuen. Hala eta gustiz ere, halako askatasun espirituala askatasun politiko bihurtu zuten Alemaniako nekazariak. Hartu zuten Luteroaren eskubidea. Eta edozein laborari otu zitzaion pentsatzea: Geuk, langileok, Jinkoarentzat bere seme-alabak izaten baldin bagara, bizitzan zehar berdinak ere izan beharko dugu. Esan eta egin. Edozein eremutan, edozein sorotan, istiluak sortu ziren. Nekazariak eskubideak berreskuratzea merezi zutela erabaki zuten. Teologo batek, Thomas Müntzerrek, alegia, Jinkoaren erresuma itultzekotan zegoela argi eta garbi idatzi

zuen. Baina, 1524.an sortutako gerlan, itxaropena, gerlarekin batera, galdu zen. Ez zen lehendabizikoa. Gogora ezazue zer gertatu zen Ingalaterran XIV.an mendean! John Wycleffek aipatu zuen ikuspegi teologikoaren abiatuta, nekazariak ere altzatu ziren. Eta John Ballaren abestia edonor kantatzera ausartu zen: «Adanek eraiten zuenean eta Ebak iruten zenean, zalduna non zegoen?». Apika, gauza berbera itaundu zuen Müntzerrek.

Ikusten ari garenez gero, ez da harrigarria apaizek uste zutela hobe zela Biblia ez zabaltzea, badaezpada ere... Jakintsuentzat gorde behar zen, eta kitto.

Erdi Aroan, bai Asisko Klarak bai Asisko Frantziskok kristautasunaren sena berpiztu zuten. Jesusek eskainitako irudiari jarraitu zioten. Noski, bere bidea jarraitzeko, Nazaratheko Jesusek esan zuena jakin behar zen. Jakin ezik, nola ekingo zioten Jesusen amodioari galdetzen zioten bere buruari.

Pixkanaka-pixkanaka, jarrerak moldatzen hasi ziren. Nolanahi ere, «Debotio Moderna»-ren jarraitzaleak eta Rotterdamgo Erasmok izan ziren gehien lortu zutenak. Batit bat, Erasmo. Berak ez zuen onartu elizgizonen piramidea: Errege-erregiñak; hausnartzen dutenak, praileak, alegia; gerla egiten dutenak; eta, azken lerrotan, beti bezala, gizon eta andre arruntak.

Dena dela, Erasmok beste neurri bat hedatu zuten. Ez zuen asmatu, ez, zeren Tarsoko Paulok egin baitzuen. Erasmok, zeinari halako «Philosophia Christi» deritzana moldatzea bururatu baitzizaion, humanismo kristauaren sormena ekarri zuen. Zer ote da? Idazle Holandarrek azpimarratzen zuenaren arabera, kristauek, gorputz bat, Jesusearekin batera, osatzen zuten. Nazaretheko maisua burua da, eta kristauak bere menpe daude, baina berdintasunean. Orduan, ez dago beste azpiegitararik. Eta, zer esanik ez?, haien artean ez dago beste buruzagi bat, berdinak direlako. Gizon eta andreak, langile eta zuzendariak, senar-emazteak eta apaizak, leikameak eta gotzainak. Guztiak, berdinak.

Gogoz ekin zioten Jesusen hitzaren itzultzeari. Nabarrako erresuma ez zen irla bat. Eta euskal eremuak, ezta bat ere. Tokian tokiko miatu behar da. Bestalde, egoerak ez dira berberak. Baina, hori egia bada ere, onartu behar da Europan zehar

Jinkoaren egarria sakabanatuta zegoela. Jinkoarekiko harremanak sustraiatuta zeuden erritoetan, edota santuen otoitzetan. Hondamendi izugarriak - izurriteak edo gaixotasunak - zirela medio, herritarrek harreman zuzenak eskuratu nahi zituzten. Aurpegiz-aurpegi, agian. Talde kristau bat non, han biblia bat erabiltzen hasi zen.

b.- Beste fede bat sustraiatu omen zen.

Nabarran, horretaz gain, beste giro bat antzematen zen. Errege Katolikoak Pirinietako erresuma hartu zuen. Mariano Arigitak, zein Goñi Gaztambiderekin batera izan zen XX.mendean ikerlari trebeena Nabarrako elizan sortu zena, salatu zuen erligioaren erabilera erreinua menperatzeko.

Egoera honetatik abiatuta, Margarita eta Albre'tar Enriqueren alaba, Juana III, alegia, bere pentsamoldea moldatzen hasi zen. Bere katolizismoa fede kalbinista bilakatu zuen.

Eta, noski, buruzagi berriei arras ona zela ikusbideak ez ezik, biblia ere bertako hizkuntzaz berridatzia otu zitzaien.

Liçarragaren belaunaldia agertu da. Ez dago bakardadean. Baditu lauzpabost artzai kalbinista leguntza ematen ziotenak. Orduan, *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria* sortu zuen. Izan zen mila bostehun hirurogeita hamaikako urtea. Pierre Hautingo moldaztegian, hain zuzen ere. Kokatua zegoen gotorleku kalbinista batean, La Rochellan, hots¹.

Bere lana oso interesagarria da. Bere Itun Berriaren itzulpenean agertzen dira bi gauzak. Alde batetik, hizkuntzari dagokionez, berak erabilitako euskera oso aberatza izateaz gain, berak hiru euskalkiak ere batu ditu. Baskonia aquitanean - Laburdi, Baxenabarra eta Zuberoako - hitz egiten ziren hiru mintzaerarekin hizkuntz dotore bat sortzea lortu zuen. Bestetik, kristauen artean errotzen da Testamentu Berriaren irakurtzearen ohitura. Ez dira makalak bi gauza hauek.

¹ Joannes L(e)izarraga, *Iesvs Christ Gvre Iavnaren Testamentv Berria*, Pierre Hautin Imprimiçale, Rochellan, 1571.

Existe una interesante reedición realizada por el investigador vienés Hugo Schuchardt y el pastor protestante Theodor Linschmann titulada *I. Leizarraga(s) Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender aun Abc) in genauen Abdruck herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt*, Verlag von K. J. Trübner, Strassburg, 1900, de la que se realizó una edición por Euskaltzaindia, Bilbo, 1990. También es valiosa la de Hordago, Donostia, 1979. Utilizamos la edición alemana por estar numerada.

Eta beste gauza bat. Liçarragak, bere erreginaren ohorez, bi hitzaurreak jarri zituen. Lehendabizikoa, frantzezaz argitaratu zuen. Bigarren aitzinsolasa, euskeraz. Eta, bat-batean, Liçarragak txundituta utzi gintuen. Lehendabiziko hitzaurrean agertu zen «pays des Basques» euskeratu egin zuen eta, supi-tuki, Euskal Herria....agertzen da.

... eta auançamendu Heuscal-herrian.

Beste zatian, «Hevscaldvney», argi ikus daiteke. Bikoizten da «h», lehendabiziko eta bigarren hitzan.

Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herria quasi etche batetic.

Hemen ikusten da lotura hau. Fedea eta nortasuna.

Eta minçatzeco maneraz den becembatean, Heuscal-herrian religionaren exercitioa den lekuc gendetara consideratione guehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara.

Beste lan batean, ABC, edo Christinoen Instrvctionea othoitz eguiteco formarequin, delakoan, aipatzeako da Liçarragaren amodioa euskeraren alde. Briskouseko txertatu zuen «Hevscal-Herrian gaztetassvnaren». Laburdiko apaizak Jesusen jarraipena bultzatu nahi du. Eta inkulturizazioa ere ager daiteke. Bertako sema-alabak zenbat eta kristaua izan, orduan eta euskaltzaileagoak izango direla uste du berak.

Berce natione guciéc, ceinec bere lengoagean beçala, Heuscaldunac-ere berean duençat, certan iracurtzen ikas ahal deçan, eta nola Iaincoa eçagutu eta cerbitzatu bear duen, necessario estimatu ukan dut!

Beste belaunaldiarekin topo egingo dugu hamazazpigarren mendean. Donibane Lohitzun, Euskal Herria akitanean, alegia, Pierre d'Urte, 1644.urtean jaio zen eta apezatu zen kaputxino bezala. Websterrek oroitarazi zigun 1706.urtean Urte Erresuma Batura erbesterazu zela. Hori dela eta, Londresen,

agirik adierazten dutenez, «prêtre converti», edota «formerly a Capuchin», «autrefois Capucin», agertu zen.

Bere arbasoek hizkuntzari zegokionez, *Grammaire* bat delakoa idazteaz gain, beste lan bat ere ekoiztu zuen, hau da, *Dictionnaire Latin-Basque* deritzana.

Eta itzuli zituen Testamentu Zaharra... Ez oso-osorik. Pentateukoren bi lehendabiziko liburuak bakarrit idatzi zituen. Hasiera edo Génesis ez ezik, Irteera & Éxodo ere egin zituen. Zer dela eta? Ez dakigu zehatz-mehatz. Hori dela eta, galdu zirelakoan zeuden adituak. Edo, hasi zuen itzulmena ezin izan zuen burutu. Tamalez, lanpetuta xamarra zebilen bizian zehar.

Hala ere, apaiz anglikano batek bera lan guztiak arakatu zituen. Wentworth Webster, euskalzale amorratua izan zen - Barandiaranen bezalakoa, bera Saran ere bizi zen - eta ikerketa ugari utzi zizkigun.

Gutxi izango balitz, Llewelyn Thomasek, Clarendon Press argialetxean, hemeretzigarren mendean plazaratu zituen Urterrek itzultako Testamentu zaharraren bi liburu.

Katolikoek, 1740.urtean, Haranederen bitartez, Testamentu Berria itzuli zuten. Itzuli, baina ez kaleratu. Itxoin behar da halako itzulmena argitzeko. Argitaratuta geratu zen, hain zuzen ere, 1855.urtean. Eta bete-beterik ez. Bakarrik lau ebangelio kanonikoak. Eta, ikusten dugunez gero, Euskal Herria akitanean. Hori, behintzat, forgatzen dute Lino Akesolok, Jean-Baptiste Daranatzek eta Pierre Lafittek, guztiak apaizak eta euskaldunak.

Beste belaunaldia da, azkenean, Vasconia akitanean sortu ez dena. Eta, frantziskotarra da. Añibarrok lau ebangelio euskeraz itzuli zituen... Argitaratzeko, ohiturari eusten, itxoin behar da. Hemeretzigarren mendearen lehendabiziko hamarkadetan murgilduta gaude.

José Antonio de Uriartek, bera ere frantziskotarra, biblia osoa itzuli zuen. Bera hil zitizion euskal kulturari 1869.urtean. Azken arnasa eman baino lehen, lan guztia moldaztegian zegoen, Louis-Lucien Bonaparte printzearen laguntzari esker.

Arantzazuko frantziskotarrek hurrengo mendean, Batikanoko Bigarren kontzilioaren bezperan, berriro ere, lau ebangelio itzuliko eta argitaratuko dituzte.

Eta, ondorioz, beste belaunaldi bat agertu zaigu. Bonapartearen esker, edozein gauza lor zitekeela bazerudien. Duvousin kapitañak labortanoz idatzi zuen. Bonapartek bere laguntzaileak bultzazu zituen, euskalkiaren arabera, Testamentu Zaharraren hainbat liburu idaztera. Lortu ere egin zuten. Eta euskeraren euskalkien nortasuna ikertzen saiatu ziren.

Ez da harritzekoa. Eta ez da beharrezkoa jakintsua izatea. Inoxo xamarrak garen gu Nabarrako Agiritegi Nagusira bertaratuko bagina, han bertan ikusiko eta ukatuko dugu zer egin zuten Bonapartearen jarraitzaileek. Agiritegiaren apalategietan hamaika kutxa aurki liteke. Adibidez, gordetzen da Erronkariko euskalkiaz idatzi ziren liburu santuak edota ikasbideak. Ezagunak dira Nabarran sortu ziren Bonapartearen lagunak. Besteak beste, Aita Hualde, Bidangotzako erretorea. Eta beste Liçarraga ager lekiguke. Joaquin Lizarragak, Elkanoko erretoreak, liburu sorta bat idatzi zituen. Eta Bonapartearen "fondo" delakoan gordeta daude. Ez zegoen harremanetan Bonapartearekin. Hil zen lehendabiziko gerla karlistaren garaian. Baina, berak idatzi zuen, Apezetxearen ustez, Iruñearen gertu - Egüesko Ibarakoa - mintzatzen zen hizkuntzaz. Eta halako mintzaerak sorgindu zuen Bonaparte, bere erronkariko euskera kenduz, jakina.

Bigarren Mundu Gerra pasa eta gero, bibliaren ekoizpena ez zen baztertu; alderantziz, jarraitu zen. Bi urte barru, 1947.urtean, gerlaren zurrumurrak desagertu ez direlarik, Aita Leon Leon beste aukera batekin agertzen zaigu. Lau ebangelio kanonikoak - Mateo, Markos, Lukas eta Joan - aterazen ditu Ustaritzko apaizak.

Gutxi gora behera, hau da gure bidezidorra. Batikanoko Bigarren Kontzilioa egiten zen bitartean, beste jokabide bat zabaltzen hasi zen.

Amaitzeko, esan behar da azken fruitua elkarlanean sortu dela. Jesusengan sinisten dutenek, zein kristau katolikoak zein protestanteak elkar aritu ziren bere Jinkoaren hitza argitzeko. Itun Berria sortu zen 1984.urtean. Hainbeste urte

ziharduten itzultzen eta Biblia ikasten ezen biblia osoa argitaratzea lortu baitzuten. Izan ere, hamarkada bat igaro eta gero, 1994.urtean liburudendetan eros zitekeen, euskera batuaz. Izenguruak adierazten duena anitz erakargarria da. Elizen Arteko Biblia. Fernando Airek, izengoitiz «Xalbador»-rek, bere bertso-paperan erakustarazi zien bere entzuleei: «Hagitz maite duenak, hagitz sufritzen du».